




URI BE

GIDA TURISTIKOA


GUÍA TURÍSTICA

Uribe

- Uribe-Kosta
- Txorierri
- Mungialdea | Uribe-Butroe



Bizkaia



Aurkibidea

Índice

Agurra Saludo	05
Uribe, helmuga turistikoa adimenduna Uribe, destino turístico inteligente	06
"Herrikoa" izateaz harro El orgullo de ser "de pueblo"	07
Txorierri	08
Mungialdea Uribe-Butroe	10
Uribe-Kosta	12
Guztiontzako esperientziak Experiencias a la carta	14
Bizkaiko flyscha, agerian dagoen altxorra Flysch Bizkaia, un tesoro a la vista	15
Burdin Hesia, guduaren kondarrak Cinturón de Hierro, los restos de la batalla	16
Uriben barrena En ruta por Uribe	17
Goazen hondartzara Vamos a la playa	18
Itsasoaren eta lurraren onura guztiak Todo lo bueno del mar y de la tierra	19
Familia-planak Planes en familia	20
Museoak Museos	21
Turismo Bulegoak Oficinas de Turismo	22



uribe

Agurra

Ongi etorri Uribe eskualdera.

Gida honen bidez, erraztasun osoz planifikatu ahal izango duzu zure neurriko egonaldia.

Hondartzan edota mendian ibiltzeko, bertako sukaldaritzaz goatzeko, atsedean hartzeko edo, alderantziz, etengabe batetik bestera ibiltzeko.

Hemen, behar duzun guztia aurkituko duzu: abentura, familia-planak, kultura eta ondarea, natura, gastronomia... Gida praktikoa honekin, oso erraz egingo dituzu planak Uriben egun ahaztezin batzuk igarotzeko.



Planifikatu Uribera egingo duzun bisita

Saludo

Te damos la bienvenida a la comarca de Uribe.

A través de esta guía podrás planificar de una forma sencilla una estancia a tu medida.

Da igual si eres de playa, de montaña, si buscas satisfacer tu paladar, si lo que buscas es descansar o, por el contrario, si eres de esas personas que no paran.

Aquí encontrarás todo lo que necesitas: aventura, planes en familia, cultura y patrimonio, naturaleza, gastronomía... una práctica guía para que te resulte muy fácil hacer tus planes y pasar en Uribe unos días inolvidables.



Planifica tu visita a Uribe

Uribe, helmuga turistiko adimenduna

Ba al zenekien Uribe eskualdea aitzindaria dela Bizkaian, Destino Turistiko Adimendunen sarearen barruan?

Eta zein da sare horren helburua?

Funtsean, garapen turistiko jasan-garriago batera eramango gaituen kudeaketa-eredu digital, berritzaile, teknologiko eta irisgarri bat eskaintzea.

Horrek guztiak, gainera, nabarmen hobetuko du zure bisitaren kalitatea, zerbitzu eta produktu turistikotara modu irisgarri eta adimendunagoan iristeko aukera emango dizulako, une oro ingurumena zainduz. Itxura ona du, ezta?



Uribe, destino turístico inteligente

¿Sabías que la comarca de Uribe es pionera en Bizkaia dentro de la red de Destinos Turísticos Inteligentes?

¿Y de qué va esto?

Pues básicamente de ofrecerte un modelo de gestión digital, innovador, tecnológico y accesible que nos lleve a un desarrollo turístico más sostenible.

Además, todo esto se traduce en una notable mejora en la calidad de tu visita porque te permitirá llegar a servicios y productos turísticos de una manera más accesible e inteligente mientras cuidamos del medio ambiente, ¿suena bien no?





“Herrikoa” izateaz harro

Kostaldekoak, barrualdekoak, naturaz inguratutako landagune lasaiak, surfaren guneak, benetako harribitxiak diren ondareen zaindariak eta gastronomiaren nahiz txakolinaren tenpluak.

Uriben, bertako ohiturak, herritarak, aisialdi-eskaintza eta kultura gertutik ezagutzeko aukera ematen dizuten 24 herri dauzkazu zain.

Haien bidez, leku magikoetan barneratuko zara, hala nola Gaztelugatxe Donien eta Butroeko gazteluan; Bizkaiko flyschak gordetzen dituen sekretuak ezagutuko dituzu; museoak eta tokiko produktuen azokak bisitatuko dituzu; mendi-ibilaldiak egingo dituzu; hirigune historiko ederrak zeharkatuko dituzu... Gure herriak, izan ere, Uriben bizitzear zauden esperientzia guztien abiapuntua dira.



El orgullo de ser “de pueblo”


De costa, de interior, tranquilos núcleos rurales rodeados de naturaleza, mecas del surf, guardianes de auténticas joyas patrimoniales o verdaderos templos de la gastronomía y del txakoli.

En Uribe encontrarás 24 pueblos orgullosos de que les visites y conozcas de cerca sus costumbres, sus gentes y todas las posibilidades de ocio y culturales que ofrecen.


Desde ellos, te adentrarás en lugares mágicos como San Juan de Gaztelugatxe o el castillo de Butrón, descubrirás los secretos que esconde el Flysch de Bizkaia, visitarás museos, ferias de producto local, emprenderás rutas de senderismo, atravesarás bellos cascos históricos... porque, nuestros pueblos, son el punto de partida de todas las experiencias que estás a punto de vivir en Uribe.



Txorierri



- 1 Leioa**
Euskal kultura eta tradizioa, gure nortasun-ikurra.
 La cultura y la tradición vasca, nuestra seña de identidad.
- 2 Erandio**
Erdi Aroan murgilduz.
 Un alto en el camino por el Medioevo.
- 3 Loiu**
Kultura eta ondarea hegaldien herrian.
 Cultura y patrimonio en un pueblo de altos vuelos.
- 4 Sondika**
Gozatzeko behar duzun berde guztia.
 Todo el verde que necesitas para disfrutar.
- 5 Derio**
Naturala, landakoa eta gastronomi-koa, ukitu teknologikoarekin.
 Natural, rural, gastronómico y con un toque tecnológico.



6 Zamudio
Tradizioa eta berrikuntza Txorierriko bihotzean.

Tradición e innovación en el corazón de Txorierri.



7 Lezama
Goi-mailako futbola mahastien artean.

Fútbol del bueno entre viñedos.

8 Larrabetzu
Herri xarmagarri batean kalerik kale.

El gusto de peregrinar por un pueblo con encanto.

Mungialdea Uribe-Butroe



1

Bakio**Itsasoaren eta txakolin-mahastien artean.**

Entre el mar y viñedos de Txakoli.

2

Maruri-Jatabe**Deskonektatzeko eta bapo jateko lekua.**

Tu lugar para desconectar y satisfacer tu paladar.

3

Gatika**Bisitak jasotzea maite duen gaztelua.**

Un castillo encantado de que le visiten.

4

Laukiz**Bertoz bertso: Lauaxetaren jaiotetxea.**

Verso a verso, hacia la casa del poeta Lauaxeta.

5

Mungia**Bete zure saskia zaporez azoken eta merkatuen herrian.**

Llena tu cesta de sabor en el pueblo de las ferias y mercados.

6

Meñaka**Auzoz auzo, herri bizkaitar peto baterantz.**

Barrio a barrio, hacia un auténtico pueblo vizcaíno.

7

Arrieta**Natura bete-betean.**

Naturaleza por todo lo alto.

8

Fruiz**Txangoa baserrien artean.**

De excursión por los caseríos.

9



Gamiz-Fika**Ondare aberatsa, memoria historikoa eta ibilbide ederrak eskaintzen dituen ingurunea.**

Un entorno con pedigrí rural rico en patrimonio, memoria histórica y sendas.

7

Arrieta

Uribe Kosta



1

Lemoiz

- ① **Lemoiz**
Kostaldearen eta barrualdearen arteko konbinazio perfektua.
La combinación perfecta entre costa e interior.
-

- ② **Gorliz**
Guztientzako dibertsioa itsasertzean.
Diversión para todos los públicos a la orilla del mar.
-

- ③ **Barrika**
Altxor geologikoa itsaslabarren oinetan.
Un tesoro geológico a los pies del acantilado.
-

- ④ **Plentzia**
Uraren bideak.
Los caminos del agua.
-

- ⑤ **Sopela**
Bilbotik METRO batera asko deskubritzeko.
Mucho por descubrir a un METRO de Bilbao.
-

- ⑥ **Urduliz**
Arrokan kokatutako ermita, behatoki ikusgarria.
La ermita en la roca, un mirador espectacular.
-

- ⑦ **Berango**
Burdin Hesiaren erdian.
En el centro del Cinturón de Hierro.

Guztionezako esperientziak

Uriben, zuk nahi beste esperientzia on biziko dituzu.

Denentzako moduko planak dauzka-gu hemen: lagun-taldeentzat, bikoteentzat, familientzat nahiz bakarrik datozenentzat.

Edozein dela ere zure adina eta edozein direla ere zure zaletasunak. Plan kulturalak nahi dituzu? Adrenalina sentitzea gustatzen zaizu? Gourmet-planen zalea zara?

Surfa; txakolinaren eta artisau-garagardoaren dastaketak; bisita gidatuak Gaztelugatxeko Donienera, Bizkaiko baserri zaharrena eta Burdin Hesira; Erdi Aroko ibilbidea; paseoak zaldi gainean; txangoak 4x4etan; zeharkaldiak kanoan...

Horrelakoak kontratatzea oso erraza da; bat aukeratu behar izatea, ez hainbeste.



Experiencias a la carta

De Uribe te vas a llevar, 1, 2, 3... o todas las buenas experiencias que tú quieras.

Aquí tenemos planes a la carta para las cuadrillas, parejas, familias y, por supuesto, para personas que vienen a disfrutar solas.

Da igual la edad, dan igual tus preferencias. ¿Quieres planes culturales? ¿Prefieres sentir la adrenalina? ¿O lo tuyo es ir en plan gourmet?

Surf, catas de txakoli y cerveza artesana, visitas guiadas a San Juan de Gaztelugatxe, al caserío más antiguo de Bizkaia, al Cinturón de Hierro, la Ruta Medieval, paseos a caballo, rutas en 4x4, travesías en canoa...

Contratarlas es muy fácil, decirte por una, ya no tanto.





Flysch Bizkaia, un tesoro a la vista

¿Sabías que en Uribe contamos con el mayor patrimonio geológico de todo Bizkaia?

Un tesoro que guarda secretos de millones de años de historia.

El recorrido para conocer el Flysch de Bizkaia está perfectamente marcado y cuentas con diferentes paneles interpretativos. Puedes hacerlo por tu cuenta o bien acompañado de personas expertas que son las que mejor entienden el lenguaje de las rocas.

Además, alrededor del Flysch de Bizkaia cuentas con diferentes empresas de ocio y turismo activo que, a lo largo y ancho de la costa, te harán vivir experiencias inolvidables en un escenario natural realmente espectacular.



Bizkaiko flyscha, agerian dagoen altxorra

Ba al zenekien Bizkaia osoko ondare geologikorik handiena daukagu-la Uriben?

Milioika urteko historia duten sekretuak gordetzen dituen altxor bat.

Bizkaiko flyscha ezagutzeko ibilbidea ezin hobeto markatuta dago, eta hainbat interpretazio-panel daude bidean. Zeure kabuz edota harkaitzen hizkuntza ulertzen duten adituen laguntzarekin egin dezakezu ibilbidea.

Gainera, Bizkaiko flyscharen inguruan aisiako eta turismo aktiboko hainbat enpresa daude, kostaldeko agertoki natural ikusgarrian esperientzia ahaztezinak eskaintzeko prest.



Burdin Hesia, guduaren kondarrak

Lehergailu ugari erori ziren inguru honetan, eta haietako askok neutralizatu egin zuten Gerra Zibilaren garaian Bilbo defendatzeko asmoz eraikitako Burdin Hesia.

Gaur egun, lubakiak, metrailadore-habiak, bunkerrak eta abar ikus daitezke bertan. Zeure kontura bisitatu ditzakezu, edo urtean zehar antolatzen diren bisita gidatuen bidez.

Uriben, gainera, Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoa daukagu, istorio, bitxikeria, objektu eta dokumentu ugariarekin. Euskadin gai horren inguruan dagoen bilduma garrantzitsuenetako bat da, hain zuzen ere.




Cinturón de Hierro, los restos de la batalla

Aquí cayeron bombas, muchas bombas que neutralizaron la línea defensiva conocida como "*Cinturón de Hierro*", construida para defender Bilbao durante la Guerra Civil.

Pero a día de hoy se conservan trincheras, nidos de ametralladora, búnkeres... que puedes visitar por tu cuenta o través de las visitas guiadas que se organizan durante el año.

Además, en Uribe contamos con el Museo Memorial del Cinturón de Hierro, un lugar lleno de historias y curiosidades, objetos y documentos que constituye una de las colecciones más importantes que existen sobre esta materia en Euskadi.



Uriben barrena

Ibiltaria bazara edo besterik gabe paseatzera irten eta txoko ederrak modu osasungarri eta jasangarrian ezagutzea gustatzen bazaizu, leku egokian zaude.

Izan ere, Uribe ordoki bat da funtsean: bista ikusgarriak eskaintzen dituzten mendi leunez zipriztindutako bailara zabal berdeak dauzkagu.

Baselizak, errotak, aspaldiko base-riak, Erdi Aroko dorreak... Ondare kultural aberatsaz gain, paisaia guztiz interesgarriak ere ezagutuko dituzu.

Ezinbestekoak dira, besteak beste, kostaldeko bideak, GR 280 bidea, Donejakue bideak Larrabetzu, Lezama eta Zamudio igarotzean hartzen dituen zatiak, ibilbide laburreko bideak eta Butroe ibaiaren ibilbidea, Bizkaiko gaztelurik bitxi, ospetsu eta bisitatuenaren oinetara eramango zaituena.



En ruta por Uribe

Si eres senderista o una persona a la que simplemente le gusta salir a dar un paseo y descubrir de una forma saludable y sostenible bellos rincones, estás en el lugar adecuado.

Porque en Uribe tenemos básicamente una planicie, es decir, extensos y verdes valles con suaves montañas desde donde las vistas son espectaculares.

Ermitas, molinos, centenarios case-ríos, torres medievales... además de un rico patrimonio cultural, también descubrirás lugares de gran interés paisajístico.

Imprescindibles son, entre otras, las rutas por la costa, la GR 280, el tramo del Camino de Santiago a su paso por Larrabetzu, Lezama y Zamudio, las diferentes rutas de pequeño recorrido y la Ruta del río Butrón que te llevará a los pies del más pintoresco, famoso y fotografiado castillo de Bizkaia.



Goazen hondartzara

Uriben, urte osoan joaten gara hondartzara: surfean egitera, paseo bat ematera, eguraldi ona denean eguzkiaz goatzera edo, besterik gabe, bertako tabernaren batean zerbait hartu eta gure kostaldeko ilunabar ederrak behatzera.

Bederatzi hondartza, bakoitza bere estilo eta giroarekin. Batzuk gazteentzat, beste batzuk familientzat; batzuk txikitxoak, beste batzuk luze eta zabalak; batzuk ezkutuan, beste batzuk hirigunearen ondoan.

Gehienetara garraio publiko bidez irits daiteke, autoa ahaztu eta Urbeko eskualdeaz behar den bezala goatzeko, modu jasangarrian.



Vamos a la playa

En Uribe vamos a la playa todo el año, a hacer surf, a dar un paseo, a disfrutar del sol cuando hace bueno o simplemente a tomar algo y contemplar los bonitos atardeceres de nuestra costa en los bares de la zona.

Nueve playas, cada una con su estilo y su ambiente. Algunas más juveniles, otras más familiares, algunas más pequeñas, otras más extensas, algunas apartadas y otras al lado del propio casco urbano.

La mayoría accesibles en transporte público para olvidarte del coche y venir a disfrutar de la comarca de Uribe como se merece, de forma sostenible.





Todo lo bueno del mar y de la tierra

Itsasoaren eta lurraren onura guztiak

Gauden lekuan gaudelako, itsasoak eskaintzen dizkigun arrain eta itsas-ki ezin freskoagoak dauzkagu, bai eta gure lurreko ekoizleen haragi, fruta eta berdurak ere.

Uriben paregabeak dira, halaber, gure txakolina, artisau-garagardoa, pateak, hestebeteak, marmeladak, barazkiak, ogi eta gozoak...

Tabernak, jatetxeak, upeltegiak, erretegiak, sagardotegiak... Zaporearen tenplu horietako asko kalitate- eta profesionaltasun-zigilua duen "Euskadi Gastronomika" produktu turistikoaren klubaren barruan daude.

Mahai on baten inguruan esertzera, pintxo ikusgarriak dastatzera edo gure tokiko produkturik onenak eskaintzen dituzten azoka-egunez gozatzera etortzen gara hona.

Por estar donde estamos, tenemos el privilegio de contar con todo lo bueno que llega a nuestra costa: pescados y mariscos frescos a más no poder, y todo lo bueno de nuestra tierra: carnes, frutas y verduras de nuestros productores y productoras.

Pero en Uribe también somos ricos en txakoli, en cerveza artesana, en patés, en embutidos, mermeladas, verduras, panes y dulces...

Bares, restaurantes, bodegas, asadores, sidrerías... muchos de estos templos del sabor están presentes dentro del club de producto turístico "Euskadi Gastronomika", todo un sello de calidad y profesionalidad.

Aquí se viene a disfrutar, de una buena mesa, de una barra de pinchos espectacular o de un día de feria donde encontrarás lo mejor de nuestro producto local.



Familia-planak

Seme-alabekin batera familian egun batzuk igarotzera hurbiltzen zaretenontzat ere hainbat jarduera diseinatu ditugu Uriben.

Txango errazak, hezkuntza-taile-rrak eta bisita gidatuak, urte-sasoi bakoitzera egokituta, Uribera edo noiz etorrita ere plan ona izan dezazuen beti.



Planes en familia

En Uribe también diseñamos actividades pensadas para aquellas personas que os acercáis con niñas y niños a disfrutar de unos días en familia.

Sencillas excursiones, talleres educativos y visitas guiadas que se irán adaptando a las diferentes épocas del año para que siempre tengáis un buen plan cuando vengáis a Uribe.



Museoak

- Txakolin Museoa-Txakolingunea
Basigoko Bide Nagusia, 3. Bakio
946 02 85 13
- Plentziako Itsas Museoa
Goienkale Kalea, 27. Plentzia
946 77 37 25
- Burdin Hesiaren Oroimenaren
Museoa
Simon Otxandategi, 64. Berango
946 68 21 43
- Izenaduba Basoa. Euskal
Mitologiaren Interpretazio-Zentroa
Landetxo Goikoa. Mungia
946 74 00 61



Museos

- Museo del Txakoli-Txakolingunea
Basigoko Bide Nagusia, 3. Bakio
946 02 85 13
- Museo Marítimo de Plentzia
Goienkale Kalea, 27. Plentzia
946 77 37 25
- Museo Memorial del Cinturón de
Hierro
Simon Otxandategi, 64. Berango
946 68 21 43
- Izenaduba Basoa. Centro de
Interpretación de la Mitología Vasca
Landetxo Goikoa. Mungia
946 74 00 61



Turismo bulegoak

Oficinas de turismo

Bakio

Basigoko Bide Nagusia, 3
48130, Bakio
Tel.: 946 19 33 95 • Fax: 946 19 31 61
turismo@bakio.eus



Sopela

Loiola Ander Deuna, 28
48600, Sopela
Tel.: 944 06 55 19 • Fax: 946 56 94 84
turismo@sopela.eus



Gorliz

Eloisa Artaza, 1 (Edif. Sertutxena)
48630, Gorliz
Tel.: 946 77 43 48 • Fax: 946 77 19 38
info@visitgorliz.eus



Plentzia

Erribera kalea, 23
48620, Plentzia
Tel.: 946 77 41 99 • Fax: 946 77 45 61
turismo@plentzia.eus







TURISMO, MERKATARITZA
ETIA KONTSUMO SABA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

www.uribe.eu

jataondo@jataondo.org

